

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Barkos Lehendakariak emakumeen papera aldarrikatu du klima-aldaketaren aurkako borrokan

*Emakumeei eta Klima Aldaketari buruzko topaketan esku hartu du, eta Nafarroak garapen iraunkorraren alde duen konpromisoa nabarmendu du*

Asteartea, 2018.eko urriak 16

Uxue Barkos Nafarroako Lehendakariak emakumeak aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan lidergoa izatera animatu ditu; Lehendakariaren ustez, erronka hori dagoeneko "larrialdiko premia" bilakatu da.

Lehendakariak adierazpen horiek egin ditu Nafarroako Gobernuak eta Parlamentuak antolatuta Iruñean egiten ari den "Emakumeak eta Klima Aldaketa. Nafarroa 2018" topaketan. Topaketaren helburua da emakumeek politikatik, ezagutzatik nahiz aktibismoaren esparrutik klima-aldaketaren arloan egindako ekarpenak ezagutzera ematea eta herritarrei gogoeta aktiboa egitera gonbidatzea.

Uxue Barkosek ziurtatu du dagoeneko klima-aldaketa "errealitatea" dela, eta gogoratu du Nazio Batuetako adituek "neurri azkarrak eta garrantzi handikoak" hartzea eskatzen dutela, berotze globalak 1,5 gradu har ez ditzan, egungo erritmoa ikusita, 2030etik aurrera horretara iritsi baitaiteke. "Jakin badakigu berotze globalean edozein igoera gertatzen bada, horrek eragina duela gizakion osasunean, espezien desagerpenean eta itsasoan igoeran. Berotze hori eragotzita, ehunka milioi pertsona murriztea lortuko litzateke aldaketa klimatikoaren eta pobreziaaren arriskuak jasateko aukera duten herrietan", azpimarratu du.



Lehendakariaren agerraldiaren uneetariko bat.

Egoera horren aurrean, Nafarroak nazioarteko hainbat forotan garapen iraunkorraren alde egiteko hartutako konpromisoa nabarmendu du, eta hori lortzeko ematen ari den urratsak azaldu ditu Nafarroa-Klinan Klima Aldaketaren Ibilbide Orriaren bitartez.

Besteak beste, ondorengoak aipatu ditu: energia berriztagarrien aldeko apustua, zero isurpeneko ibilgailuak erosteko pizgarriak, ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak hedatzea edo eraikin publikoetan CO2 emisioak kentzea 2030 baino lehen.



Ezker eskuin, Barkos Lehendakaria, Cristina Gallach eta Elizalde kontseilaria.

Lehendakariak azpimarratu duenez, azterketen arabera emakumeak ahulagoak dira klima-aldaketaren efektuen aurrean. "Baina analisiek –jarraitu du- baita ere erakusten dute guk arazoaren aurrean ditugun jarrerak eta erantzunak arduratsuagoak eta eraginkorragoak direla". Hain zuzen ere, azterketei erreparatuta, oro har, gizonak emakumeek baino energia gehiago kontsumitzen dute, bereziki garraio pribatuari dagokionean; aldiz, emakumeek hartu ohi dituzte familiaren kontsumoarekin zerikusia duten erabaki gehienak, batez ere, elikagaien, uraren eta energiaren inguruan.

"Egoera larria dela kontuan izanda eta emakume bezala gure hurbileko ingurunearen zaintzaile eta kudeatzaile gisa pilatutako ezagutza medio, garrantzitsua da gure ekarpena ezagutzera emateaz gain, jakintza horrek aldaketa klimatikoaren politikak eta estrategiak bideratzen dituela jakitea: energiaren eta baliabideen kontsumoa neurtzea, kontsumitzeko gure modua nahitaez aldatzea eta gure lurraldea arazo orokor horren mehatxuen aurrean prestatzea", amaitu du Lehendakariak.

## Topaketa

"Emakumeak eta Klima Aldaketa. Nafarroa 2018" topaketari atzo arratsaldean eman zitzaion hasera Foru Parlamentuan, Nafarroako, Balearretako, Madrilgo, Valentziako Komunitateko, Extremadurako, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Kataluniako berrogei bat emakume politikari bildu zituen lan-saioarekin. Parte-hartzaileen artean Nafarroako Gobernuko bost kontseilariak aurkitzen ziren, eta ["Emakumeok Klimaren alde" izeneko deklarazioa](#) landu eta onartu zuten; hau da, jarduera eta konpromiso zehatzak definitzen dituen eta gaur aurkeztu dena.

Deklarazioa hitzurre batekin hasten da, eta, bertan, aldaketa klimatikoaren egoera eta emakumeen ekarpenak laburbiltzen dira; horrez gain, "klima aldaketa emakumeen ekarpenaren indargunea erakusteko aukera bat da" azpimarratzen da, horrek "berdintasun handiagoko eredura eta natura eta pertsonak (bereziki emakumeak) gehiago errespetatzen dituen eredura aldatzen" lagunduko baitu.

Halaber, agirian gaiaren inguruko zenbait gomendio jasotzen dira, tartean emakumeak ahalduntzea Klima Aldaketaren inguruko erabakiak hartzeko, iraunkortasunaren kultura berrian oinarritutako hezkuntza sustatzea, aldaketa klimatikoak osasunean eta bereziki emakumeengan dituen efektuei buruzko azterketak eta programak egitea, edota talde ezberdinen urrakortasun klimatikora egokitutako gizarte-politikak garatzea.

Gaurko saioan, Cristina Gallach-ek, Espainiako Gobernuaren Agenda 2030erako Goi Komisarioak, inaugurazio-txostena aurkeztu du. Aurretik, Uxue Barkos Nafarroako Lehendakariak Gallachi harrera egin dio, zeinak Foru Komunitatea garapen iraunkorraren alde egiten ari den apustuan garatzen ari den lana azpimarratu duen.

Gallachek bere hitzaldian adierazi duenez, "eskerrak eman nahi dizkiet kontseilariei, eta batez ere, Isabel Elizalderi, Nafarroa eredugarri bihurtzen ari direlako. Beharrezko aldaketa ari da gauzatzen hemen eta, hori ez da posible zuek gabe. Zuen herrialdea trantsizio honetan iaiztik zehaztuta duzuen Klima


Aldaketaren Gidalerroari jarraituz aparteko ekarpena egiten ari da, eta gainera gaur egiten ari garen eztabaiden modukoek arazoak dituzte erdigunean, baina, batez ere irtenbideak”.

Programa osatzeko, gaikako bi mahai-inguru egin dira, bat "politikatik" eta bestea "ezagutzatik eta mugimendu sozialetatik", eta gaiaren inguruko alderdi ezberdinak jorratu dituzte.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilari Isabel Elizaldek amaiera eman dio jardunaldiari, eta nabarmendu du instituzio guztiek eta eremu guztiek zeharkako estrategiak landu behar dituztela.

“Nafarroan, —ziurtatu du— garbi dugu elkarrizketa, topaketa, parte-hartzea, elkarrizketa integratzailea,... bezalako lanerako erreminten bidez, errazago bilatuko ditugula konpromisoak eta errazago egingo dugula aurrera. Gure ikuspegia, bai toki-erakundeetatik, Udaletatik, Mankomunitateetatik nahiz Parlamentutik eta Gobernutik, integrala, zeharkakoa, irekia,... da”. Modu horretan, “ekonomiaren beste eredu baterako, ekonomia zirkularrerako bidean aurrera egiten dugu, eta trantsizio ekologiko ordenatu ezinbesteko horretara gidatzen gaitu”, amaitu du.

### Galería de fotos



Adierazpena irakurri duten zuzendari orokorrak.



Topaketara bertaratu direnak.